



David Shrigley artistaren *Of all of these things* (2000) eta *Me doing things* (2000) obrak, Nafarroako Unibertsitateko Museoan. INIGO URIZ / FOKU

Auto lodi bat zirika

‘Broma bat kontu serioa da’ erakusketa ireki dute Nafarroako Unibertsitateko Museoan

- Atzerriko hamabost artistaren obrak jaso dituzte guztira
- Izan eskultura, marrazki edo pintura, umorea da lanen ezaugarri nagusia

Uxue Rey Gorraiz Iruñea

Umorea artez egitea, eta artea umorez; biak dira posible, eta, hain zuzen ere, hori frogatu nahi du Nafarroako Unibertsitateko Museoan zabaldu duten erakusketa berriak: *Broma bat kontu serioa da. Umorea artean Bergé bildumaren bitartez*. Hamabost artistaren artelanak biltzen ditu, eta, izenburuak adierazten duen bezala, aldarrikapen bat ozentzea ere bada erakusketaren helburua: umorea ez da arinkeriaz lantzekoa. Urriaren 1era bitarte izanen da ikusgai, museoaren Torre aretoan.

«Esan ohi da umorearen sena soilik pertsoneri loturiko gaitasuna dela. Geure gabeziak eta akatsak jartzen dizkigu begien parean, eta barre eragin. Nolabait, ihesbide bat da; batzuetan, gauza



Erwin Wurm artistaren *Fat Car* obra. INIGO URIZ / FOKU

batzuk kolpez aldatzea ezinezkoa denean, hori baitugu erremedio bakarra. Dena dela, umorearen helburua ez da bakarrik bat-bateko plazera eragitea; kritikoa izan daiteke, eta ziztatzailea. Hortaz, har dezagun serio». Erakusketaren komisario Eva del Llanorenak dira hitzok. Aletu dituen ideia horiek ederki laburtzen dute bildumaren funtsa.

Del Llano ez ezik, Maria Gallejos eta Jaime Guillen ere aritu dira komisario lanetan. Hain justu ere, Guillenek argitu du zer efektu eragin nahi luketen lanaren bitartez publikoarengan. Azaldu duenez, helburua da arte garaikidean umoreak jokatzeko duen funtzioari arreta ematea, eta, horrenbestez, ikuslearen erreakzioak ez du zertan irria izan, erakusketaren asmoa ez baita «txiste bat kontatzea». Ira-

doki duenez, beste zerbait nahi dute eragin, «irribarre konplize bat», adibidez, artistaren asmatzen ulertu izanaren seinale izan daitekeena.

Komisarioek nabarmendu dutenez, asmamen ugari ezagutzeko aukera ematen du bildumak. Hamabost artistaren piezak jaso direnez gero, askotariko ahotsak, diskurtsoak eta teknikak baitaude ikusgai.

Besaulkiak eta neurriak

Zehazki, hauek dira parte hartu duten artistak: Liz Arnold, Anna Barribal, Andrea Bowers, Martin Creed, Dora Garcia, Pablo Helguera, Chris Johanson, Jaime Pitarich, Werner Reiterer, Nina Saunders, David Shrigley, Bob eta Roberta Smith, Nedko Solakov, Marijke Van Warmerdam eta Erwin Wurm. Haien lanek bi ezau-

garri komun dituzte: 1990eko hamarkadaren hondarrea edo 2000ko hamarkadaren hasieran eginikoak dira, eta, materialak zernahi izanik ere, umorea dute baliabide nagusia; berdin marrazkietan, pinturretan, eskulturretan edo bideoetan.

Erakusketa bi gunetan banatu dute. «Batean, testuaren eta irudiaren arteko jolasak gailentzen dira, bien arteko tentsioak. Eta bigarrenean, berriz, egunerokoaren transformazioa», esan du Del Llano.

Diziplina askotako lanak daude: pinturak, marrazkiak, eskulturak, instalazioak, bideo performanceak...

Erakusketan nekez aurki daitezke umore beltza; ordea, pieza batzuei garrantasuna daria, eta kritika

Umore beltza nekez aurki daiteke bilduman. Ordea, garrantasuna darion piezarik badago: esaterako, aretoaren sarreran, arreta ematen du Saundersen *Because I'm worth it* obrak. Besaulki bat da, eta bertan inor ez kabitzeko moduko eserlekua du, estu-estu. «Sistemak ezarritako neurrietan kabitzea zeinen zaila den irudikatu nahi du», azaldu du Del Llano. Besaulkiarena ez da neurriei erreferentzia egiten dien bakarra: Wurmen *Fat Car* obra ironikoak gaitasun aski handia du ikuslea zirikatzen. Auto gorri eta arrunt bat izan liteke, nabarmen deformaturik ez balego. Lodia da, txantxetan aritzeko gizendua.

«Hurbileko estetika»

Pieza ugari nabarmentzen dira salan, hala nola Barribalen *Bag Drawing* –errotuladorenz tindatutako poltsa bat da– eta Reitereren *Jumping Soul* –koltxoi bat da, eta sensorre batekin soinua ateratzen du inor ondoan denean–.

Bestalde, komisarioak sinetsita daude erakusketa aise ailega daitekeela gazteengana, «hurbileko estetika baitu» haien ustez. Gainera, azaldu dutenez, aretoaren hondoan jarri duten «dokumentazio mahaia» oso lagungarria da mediazioa sendotzeko. Bibliografia gisara baliatutako elementuak paratu dituzte bertan, eta hantxe dago, adibidez, Salvador Lavado *Quino* autoreak sorturiko Mafalda pertsonaiari buruzko liburu bat. Baina bada modernoagorik ere. Guillen: «Umoreaz ari garelarik, memeak ezin ziren faltan izan».